NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILA

# 3. UNITATE DIDAKTIKOA:

# HITZARMENA

# GAI ZERRENDA



## HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida

## MATERIALA

- “Bizitzaren lau zutabeak” jolasa
- “Beti aurrera!” disko-foruma
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

## NAHIKO! 5-6 Logoa

Emakumeen aurpegi erdi gorria. Desberdintasunengatik eta tratu txarrengatik triste.

Emakumeen aurpegi erdi berdea. Berdintasunagatik eta tratu onengatik alai.

HELBURUA: aurpegi berdeak egon daitezen portaerak identifikatu eta garatu.

## BIZITZARAKO PROIEKTU INTEGRAL PROPIOA

- Pertsona osoak eta autonomiadunak bizitzaren esparru guztietan:
  - Esparru publikoan eta pribatuan.
  - Zainketaren arloan eta ekoizpenean.
  - Familian eta gizartean.
  - Afektuetan eta kudeaketan.
- Norberaren bizitzan, familian, lanean, gizartean, eskolan, kirolean, kulturan, politikan eta abar, tratu onak eta Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.













# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 5. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK |
|---|---|
| 1. Nor naiz ni? | Nor da nor?. Hitzez hitz. Etiketen jolasa. |
| 2. Bizitza proiektua | Bizitzaren loteria. Bizitzaren jolasa. |
| 3. Konpromisoa | Bizitzaren lau zutabeak. Beti aurrera! |

## 3.UD, KONPROMISOA

- Genero etiketa eta estereotipoak gaindituz, bakoitza norbera izateko guztion konpromisoa.
- Nork bere bizitza proiektua aukeratu, garatu eta aldatzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa.
- Bizitzaren arlo guztietan emakumeek aurre egiten dioten bortizkeriaren aurkako konpromisoa. Giza Eskubideen eta tratu onen aldeko konpromisoa.



# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

## IRAKASLEAREN GIDA

1. Helburuak eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. "Bizitzaren lau zutabeak" jolasa
4. "Beti aurrera!" disko-foruma

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

HITZAR-MENA

NAHIKO! 5-6

3 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (1/2)

### 1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Hirugarren unitate didaktikoak hiru helburu ditu. Lehenengoa, aurreko bi unitate didaktikoak gogoratu, sakondu eta laburtu, bereziki genero estereotipoak eta norberaren bizitza proiektua bizitzaren lau esparruetan. Bigarrena, gure ikasleei nork bere proiektua aurrera eramateko kompromisoa behar dela ulertarazi, esfortzua eta konpromiso handia, generoko ohitura, debeku eta baimenen errazatan ez erortzeko ahalegin pertsonala. Eta azkenik, gizarte osoaren konpromisoa eta hitzarmena behar dela aurrera egiteko, bereziki gure erakunde eta ordezkariena. Aipatu dugun norberaren eta familien ahalegin hauek arrakasta izan dezaten, guztiz beharrezkoa da gure gizarte osoaren eta erakundeen erantzunkizuna, konpromisoa eta hitzarmena, heuren laguntza, bitarteko eta errekurtsoak guztiz beharrezkoak direlako lan horretan.

Lehenengo helburua dela eta, lehen hurbilketa egin ondoren, genero estereotipoak berriro identifikatu, aztertu eta hausnartzeko garaia da orain. Orain arte konturatu ez bagara ere, beraiek baldintzatzen dutelako etengabe errealitatea ikusteko eta ulertzeko gure modua, geure burua ikusi, ulertu eta gure nortasuna eraikitzeko modua, gure bizitza proiektua eta beste pertsonekin ditugun harremanak, naiz bikotean, familian edo kalean. Soil-soilik guzti hau kontutan badugu, soilik gure ideia, sentimendu, jarrera eta jokaera etengabe genero ikuspuntutik aztertzen baditugu, nahi duguna izan ahal izango dugu eta nahi dugun proiektua burutu. Bestela, "pertsonak erdiak" izaten jarraituko dugu, beste batzuen azpiko edo beste batzuen gaineko sasipertsonak, antzinatik idatzita dagoen gidoi baten antzezle klonikoak. Feminitate eredu estereotipoaren arabera, emakumeok men egite ereduan eraikiko dugu gure burua eta gure bizitza, eta gizonok berriz, maskulinotasun estereotipatutik, menperatze ereduan.

Bizitza proiektu pertsonala, osoa, autonomoa eta lau esparruetan orekatua eramatea ez da erraza. Norberaren buruarekin konpromisoa eta esfortzu handia eskatzen du. Gure jokaerak eta gure ingurukoak etengabe aztertu behar ditugu. Maiz, gehiengoaren kontrara bizitzea eskatzen du. Ez da erosoena. Ez da errazena. Alderantziz, generoaren gizarteko debeku, baimen eta txaloei kontra egiteko norberaren aukera garbia behar da.

# KONPROMISO PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA




## KONPROMISOA

Nork bere buruarekin akordioa, konpromisoa. Eta gizartearekin akordioa, konpromisoa, gizarte eragile eta erakundeekin.

Pertsona guztiei, genero-mugarik gabe, bizitza proiektu propio bat aukeratzeko, garatzeko eta aldatzeko aukera bermatzeko konpromisoa.

## BIZITZA PROIEKTU PERTSONALA

Ez da erraza bizi-eremu guztietan bizitza proiektu integrala, autonomoa eta orekatua egitea.

→ Ahalegin handia eskatzen du, proiektu propioarekiko eta norberarekiko konpromiso irmoa. Askotan, konpromiso horrek ez du gehiengoaren bidea jarraitzen. Batzuetan, presioak eta deskalifikazioak jasaten dira, baita erasoak ere. Ez da erosoena eta errazena.

→ Hezi eta garatzea eskatzen du, bizitzaren arlo guztietarako prestatzea. Eta gure gizartean nagusi den generoaren sozializazioan baztertuta geratu diren arloak konpentsatzea (batez ere, orokorrean, lan-esparrua nesken kasuan eta familia-esparrua mutilen kasuan).

# HITZARMENA KONPROMISOA




**FAMILIAN ETA BIKOTEAN, genero-estereotipoen aurkako eta berdintasunaren, aukeratzeko eskubidearen eta berezko proiektu propioaren aldeko konpromisoak, ahaleginak eta ekintzak behar dira.**

- → **Beharrezkoa da familiaren eta bikotearen akordio eta konpromiso sendo bat, pertsona bakoitzaren bizitza proiektua errespetatu, bultzatu eta ahalbidetzeko.**
- → **Tratu onen aldeko akordioa beharrezkoa da, familiaren egunerokotasun praktikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta guztiontzako giza eskubideak bermatuko dituena.**

**GIZARTEAN, maila eta esparru guztietan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko akordio eta konpromisoa behar da, eguneroko bizitzan giza eskubideak defendatzeko eta tratu txarrak prebenitzeko konpromisoa.**

- → **Bereziki ezinbestekoak dira erakunde publiko eta pribatu guztien konpromisoa eta ekintza irmo eta koordinatua.**

# AUTONOMIARAKO ETA GARAPEN INTEGRALERAKO KONPROMISOA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

## BIZITZAREN ARLO GUZTIETARAKO PROIEKTU PERTSONALA

**Pertsona bakoitzak bizi-eremu guztietan bere bizitza aukeratu, eraiki eta bizi dezan proiektu bat, lau arlo handi hauetan ordezkatutako bizi-eremu guztietan:**

- **NI-NEU: nortasuna, ahalmenak, zaletasunak, sentimenduak…**
- **FAMILIA: afektiboki lotura dituzten eta elkarrekin bizi diren pertsonak.**
- **LANA: lan mundua, enplegua, lan-jardun profesionala eta ekonomikoa.**
- **GIZARTEA: adiskideak, harreman sozialak, hiritar parte-hartzea, politika…**

NI NEU
GIZAR TEA
FAMI LIA
LANA

**PERTSONAREN GARAPEN OSOA**

**BIZITZAREN ESPARRU GUZTIETAN AUTONOMIA ETA INTERDEPENDENTZIA**

# BIZITZAREN ESPARRU GUZTIETAN




**BIZITZAREN EREMU GUZTIAK, LAU HORIETAN ORDEZKATUAK ETA LABURBILDUTA**

- Elkarri lotuta dauden lau eremu, batak besteetan eragina dutenak.
- Pertsona autonomo eta orekatua izateko, garapen integrala eta osoa izateko, harreman pertsonal positiboak eta egokiak izateko: garapen egokia lau esparruetan.
- Familian bakarrik garatzen diren pertsonak (batez ere emakumeak): mendekotasun, oztopo eta arrisku handiagoak.
- Lan-eremuan eta gizarte-eremuan garatzen diren pertsonak (gehienbat gizonak): desoreka eta gabezi pertsonal handiagoak.

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



**Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili**

## PAUSOAK:

→ **Asteroko saioetan ikasleekin:**

- "Bizitzaren lau zutabeak" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- "Beti aurrera!" disko-foruma landu.
- Ikasleen koadernoa bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ **Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# ONLINE JOLASAK

## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...



BETI AURRERA

GENERO EREDU GUZTIEN GAINETIK

BERDINTASUNAREN ILDOTIK

TRATU TXARREN KONTRA GOGOTIK

GIZA ESKUBIDEEN ALDETIK

7 To be or to beee.
JOXE RIPIAU

Zenbat jende
zure aita izan nahi duena!
Zenbat jende
zure ama izan nahi duena!
Zenbat jende
zure eredu izan nahi duena!
Zenbat jende
zure epaile izan nahi duena!

Izan zaitez
zeure buruaren jabe
Izan zaitez
zeu!!!

Zenbat jende
zure nagusi izan nahi duena!
Zenbat jende
zure irakasle izan nahi duena!
Zenbat jende
zure errege izan nahi duena!
Zenbat jende
zure jaingoiko izan nahi duena!

Izan zaitez
zeure buruaren jabe
Izan zaitez
zeu!!!

Azter dezagun. Jolas gaitezen

- Zein da abestiaren mamia edo gaia?
- Zer esan nahi du izenburuak "To be or to beee"? Zein da hitz jokoa?
- Zein beste izenburu jarriko zeniokete?
- Nortzuk uste duzue izan nahi dutela gure: aita, ama, eredu, epaile, nagusi, irakasle, errege, jaungoiko? Jar itzazu hitz bakoitzarentzako adibide batzuk.
- Guk ere inoiz horrelako paper agintari eta mugatzaile egiten al dugu neskekiko? Noiz? Nola? Eta mutilekiko?
- Neska eta mutilei jarritako etiketen eta ereduen eraginez artalde bilakatzen al gara? Nolako artaldeak?
- Aipatu itzazue, agindu mugatzaile horien eraginez, bizitzaren lau arloetan gure buruaren jabe izateko aurkitzen ditugun oztopoak.
- Zer suposatzen du gure bizitzan geure buruaren jabe izateak?
- Zeintzuk dira gizarteak baliogarritzat jotzen dituen ereduak? Zergatik? Ba al daude beste ereduak?
- Zeintzuk dira guk, geure bizitza proiektoa egiteko, baliogarritzat jotzen ditugun ereduak?




## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA







## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
  - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK






## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu…
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu…
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu…
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# 3.UD-KO JOLASAK







- "Bizitzaren lau zutabeak"
- "Beti aurrera!"

# "BIZITZAREN LAU ZUTABEAK" JOLASA

## 4 BIZI-EREMU
## 4 PROBA MOTA

- NI, urdina: "mimika", ekintza baten deskribapena, zer adierazten du?
- FAMILIA, horia: zeri edo nori dagokio definizioa?
- ENPLEGUA, arrosa: hieroglifikoa, zein lanbide edo enplegua irudikatzen dute marrazkiek?
- GIZARTEA, berdea: antzeko hitzak, sinonimoak, zertaz ari gara?



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 1

- **FITXA: partidaren hasieran, sistemak fitxa bat aukeratzeko aukera emango du. Fitxa bakoitza lau zatitan banatuta dago. Zati bakoitza bizitzaren eremu bati dagokio, eta bere kolorearekin beteko da, hura gainditzea lortzen denean.**

- **LAUKI NAGUSIA: eremu edo kolore bakoitzaren erdian dagoen laukia da. Bertara iritsi eta galdera bat behar bezala erantzun behar da, eremu horretako kolorea edo pieza lortzeko.**

- **Fitxa lauki nagusian erortzen denean, sistemak dagokion eremuari buruzko galdera bat egingo du. Zuzen erantzuten bada, fitxarako dagokion kolorea lortuko da.**








EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 2




- **IRTEERA: fitxetarako lau irteera-lauki daude, bat kolore-eremu bakoitzean. Izkinetan dauden laukiak dira.**

- **TXANDA denean, "dadoa bota" klikatu behar da.**

- **AURRERATU: daduaren puntuazioaren arabera, marradun laukitxoetara mugi ahal izango da fitxa. Aukera guztien artean, lauki marradun bat aukeratu behar da eta gainean klik egin, fitxa hara mugitzeko.**

- **GALDERA IKURRA "?" duen lauki batetik galdera ikurra "?" duen beste batera salto egin daiteke.**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# JOLAS ARAUAK 3



- **KOLORE BAKARRA: partidaren hasieran fitxa bakoitzak atera duen kolorearen laukitxoetan bakarrik egin ahal izango du aurrera. Behin kolore hori lortuta, lehen kolorearen eta beste kolore baten gainean aurrera egiteko aukera izango du. Eta horrela, lau koloreak lortu arte.**

- **PROBAK: aurrera egin ahal izateko, kolore bakoitzean agertuko diren probak gainditu behar dira. Lau proba mota daude: mimika-ekintza (urdina), definizioa (horia), hieroglifikoa (arrosa) eta sinonimoak (berdea). Erantzuna zuzena bada, beste jaurtiketa bat gehiago egongo da.**

- **BUKAERAKO LAUKIA: lau esparruen koloreak lortu ondoren, fitxa irteera-laukira eraman behar da partida amaitzeko.**




* Joko hasierakotutorialean zehatz-mehatz azalduta

# “BETI AURRERA!” DISKO-FORUMA


BETI AURRERA

GENERO EREDU GUZTIEN GAINETIK
BERDINTASUNAREN ILDOTIK
TRATU TXARREN KONTRA GOGOTIK
GIZA ESKUBIDEEN ALDETIK

7 To be or to beee.
JOXE RIPIAU

Zenbat jende
zure aita izan nahi duena!
Zenbat jende
zure ama izan nahi duena!
Zenbat jende
zure eredu izan nahi duena!
Zenbat jende
zure epaile izan nahi duena!

Izan zaitez
zeure buruaren jabe
Izan zaitez
zeu!!!

Zenbat jende
zure nagusi izan nahi duena!
Zenbat jende
zure irakasle izan nahi duena!
Zenbat jende
zure errege izan nahi duena!
Zenbat jende
zure jaingoiko izan nahi duena!

Izan zaitez
zeure buruaren jabe
Izan zaitez
zeu!!!

Azter dezagun. Jolas gaitezen

- Zein da abestiaren mamia edo gaia?
- Zer esan nahi du izenburuak "To be or to beee"? Zein da hitz jokoa?
- Zein beste izenburu jarriko zeniokete?
- Nortzuk uste duzue izan nahi dutela gure: aita, ama, eredu, epaile, nagusi, irakasle, errege, jaungoiko? Jar itzazu hitz bakoitzarentzako adibide batzuk.
- Guk ere inoiz horrelako paper agintari eta mugatzaile egiten al dugu neskekiko? Noiz? Nola? Eta mutilekiko?
- Neska eta mutilei jarritako etiketen eta ereduen eraginez artalde bilakatzen al gara? Nolako artaldeak?
- Aipatu itzazue, agindu mugatzaile horien eraginez, bizitzaren lau arloetan gure buruaren jabe izateko aurkitzen ditugun oztopoak.
- Zer suposatzen du gure bizitzan geure buruaren jabe izateak?
- Zeintzuk dira gizarteak baliogarritzat jotzen dituen ereduak? Zergatik? Ba al daude beste ereduak?
- Zeintzuk dira guk, geure bizitza proiektoa egiteko, baliogarritzat jotzen ditugun ereduak? Zergatik?
- "Izan zaitez zeu" dio abestiak, bizitzaren zein arloetan bete beharko genuke hori? Nola?
- Izan al gaitezke gu, besteak errespetatu gabe, besteak berak izaten lagundu gabe? Zergatik? Nola?

## TRATU TXARRAK GAINDITZEARI BURUZKO 20 KANTA

- 10 euskaraz
- 10 gazteleraz
- Kanten hitzak
- Azterketa egiteko galderak

1. Ez gaitu inork geldituko. URTZ
2. Zuloak estaltzen. GORKA SARRIEGI
3. Behi guztiak ez gara berdinak. BETIZU
4. Orain. HEMENDIK AT
5. Zure amak badaki. SOROTAN BELE
6. Xoxoak beleari ipurbeltz. URTZ
7. To be or to beee!. JOXE RIPIAU
8. Gogoak eman hala. MAIXA TA IXIAR
9. Bidean. KEN 7
10. Zure ingurua. BETAGARRI
11. No suelo compararme. JARABE DE PALO
12. El miedo. EL CANTO DEL LOCO
13. La fuerza de la vida. OT II
14. Puede ser. EL CANTO DEL LOCO
15. Sonríe. ROSANA
16. Grita. JARABE DE PALO
17. Color esperanza. DIEGO TORRES
18. Nada que perder. MANÁ
19. Salir corriendo. AMARAL
20. Sin miedo. ROSANA

# GALDERAK ETA JARDUERAK

A) KANTA BAKOITZA: bere hitzak eta berariazko galderak eta jarduerak.

B) GALDERA ETA EKINTZA OROKORRAK: edozein kanta (hauek edo gaur egungo beste batzuk) lantzeko jolas eta jarduerak:

- Letra berria asmatu, jarraipena edo erantzuna eman...
- Dantza, koreografia, bideo... asmatu.
- Marrazki bat egin, komiki bat, argazkiak...
- Antzeztu, ipuina idatzi...


BETI AURRERA
GENERO EREDU GUZTIEN GAINETIK
BERDINTASUNAREN ILDOTIK
TRATU TXARREN KONTRA GOGOTIK
GIZA ESKUBIDEEN ALDETIK

3 Behi guztiak ez gara berdinak. BETIZU

Bi adar eta lau hanka ditugu,
hala ere ezberdinak gara gu;

Guk ere badugu gure izaera,
bakoitzak berea,
hala hobe da!

Behi guztiak ez gara berdinak.
la beti egin arren "Mu! Mu! Mu!
beti gauza ezberdina diogu.

Guk ere badugu gure izaera...

Azter dezagun. Jolas gaitezen

- Zein da abestiaren mamia edo gai nagusia?
- Behiek diotena aplika al daiteke gizakiei? Eta neskei? Eta mutilei? Zertan bai eta zertan ez.
- Nork ikusten ditu emakume guztiak igual-igualak, klonak balira bezala? Zergatik? Zein ondorioak ditu horrek?
- Mutilek esan al dezakete "ezberdinak gara gu, guk ere badugu gure izaera, bakoitzak berea"? Zergatik? Zertan nabaritu beharko litzateke?
- Zeintzuk izan daitezke gizakion, gizon eta emakumeon, "bi adar eta lau hanka" horiek?
- Zergatik da hobeago bakoitzak, nahiz neska nahiz mutila izan, bere izaera izan? Zer alde onak eta txarrak ditu aniztasun horrek?
- Zer esan nahi du "la beti egin arren "Mu! Mu! Mu! beti gauza ezberdina diogu" esaldiak? Guri ere horrelakorik gertatzen al zaigu?
- Guk ere, behi hauek bezala, izaera desberdinak al ditugu? Erreza al da norberak berea izatea? Zein traba ditugu neskok horretarako? Eta mutilek?
- Laburki, aipatuko al zenituzkete zeintzuk diren taldekideon izaerak?
- Positiboa al da bakoitzak bere izaera edukitzea, edo hobe litzateke guztiona berdina izatea? Zuen erantzuna arrazoitu.
- Posible al da aniztasuna eta berdintasuna...

AZTER DEZAGUN. JOLAS GAITEZEN

- Abestiaren musika berbera e... abestiari.
- Abestiari dantza edota koreo...
- Abestiak inspiratutako marra... murala egin.
- Abestia edota bere gaia, ego... antzeztu.
- Abestia, taldeak elkarrekin asmatutako argazki batekin irudikatu (argazki geldo bat, irudi finkoa).
- Izenburuaren desberdina den beste izenburu edo slogana atera gai horri buruz.
- Esaldi bakar bat hartu, eta musika berberarekin, edo beste batekin, beste kanta bat asmatu, hartutako esaldia abesti berriraren izenburu bilakatuz.
- Abestiak kontatzen duen historioari erantzun bat eman, musika berbera edo musika desberdina duen beste abesti bat asmatu.
- Abestiak, ez du egoera osoa detaileekin zehazten. Osatu istorioa, eta emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntutik bukaera positiboa duen ipuia edo idazlana asmatu.

ANALICEMOS. JUGUEMOS
- Utilizando la misma música de la canción, inventad una letra nueva.
- Inventad un baile o coreografía para la canción.
- Haced un dibujo, cómic, mural... inspirado en la canción.
- Representad la canción, haced un teatro de la misma, su tema, situaciones, personajes...
- Representad la canción con una foto realizada por el grupo, un imagen estática (una escena realizada por el grupo).
- Inventad un slogan o título distinto al título

# IKASLEEN KOADERNOA

**Landutako jolasei buruzko ariketak**




**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu...
- Galderak erantzun. Testuak idatzi...

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri...).

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei koadernoen helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu…
3. Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.

## TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ "EGINBEHARRA"

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak… BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## "ONLINE JARRAIBIDEAK" pdf-a

- **Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.**
- **Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.**
- **Jolasak erabiltzeko pausoak.**
- **Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.**
- **Online jolasteko ohar teknikoak.**
- **Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.**
- **Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.**



NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO